

Participante: Josune Aznárez Alkat

SAN JUAN UKENDUA

San Juan ukendua San Juan egunean egin behar da (ekainaren 24an). 2 urtez propietate guztiak mantenduko ditu; ondoren, propietateak apurka-apurka galduko ditu, 5 urte pasata propietaterik gabe gelditu arte. Ukendu honek ubeldurak, zauriak, erredurak, kolpeak eta abar sendatzeko balio du.

Osagaiak:

- Oliba olioa
- Argizaria
- Sendabelarrak: sanjuan lorea, larrosa, izpilikua, erromeroa, intxaurrondoaren hostoak,...

Lehenik eta behin, sendabelarren bila abiatuko gara. Bigarrenik, olio berotuko dugu, lapiko batean. Bero dagoenean, sendabelarrak sartuko ditugu. Ordu bat gutxienez utziko ditugu, su baxuan, irakin ez dezan. Hirugarrenik, landareak oliotatik aterako ditugu eta argizaria oliotan urtuko dugu. Laugarrenik, sendabelarrei zukua aterako diegu, hozten direnean. Zuku hori oliotara botako dugu gero. Azkenik, olio pote txikietan isuri, estali eta leku ilun batean gordeko ditugu (izena eta data jarri ondoren).



